


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 3,3 egin dute gora 2022ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean

2021eko urtarrilarekin alderatuta, industria-prezioek % 15,4 egin dute gora

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 3,3 egin dute gora 2022ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean, Eustaten datuen arabera. Urtarrileko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 15,4koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzago batek erakusten du 2022ko urtarrilean prezioetan aurreko hilaren aldean hazkuntza nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 7,2), *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 5,3) eta *Industria kimikoa* (% 4,7). Prezioetan hilen artean beherakada izan duen sektore bakarra, berriz, *Erauzketa-industriena* izan da (% 1,2 egin du behera).

Helmuga ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenarekin jarraitzeko, prezioen aldakuntzak, aurreko hilaekin alderatuta, guztiak izan dira positiboak: *Energiak* gora egin du prezioetan % 6,1, *Tarteko ondasunek* % 3,4, *Ekipo-ondasunek* % 2,0 eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 1,9, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* % 2,0ko eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* % 1,3ko igoeraren ondorioz.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2022



Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	118,7	3,3	15,4
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	109,6	-1,2	0,5
Manufaktura-industria	117,6	3,2	12,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	113,3	3,5	6,6
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	104,2	0,3	-3,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	121,4	5,3	17,0
Kokeak eta petrolioaren finitzen	134,1	7,2	40,0
Industria kimikoa	132,0	4,7	20,9
Botiken fabrikazioa	114,3	1,0	1,6
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	103,2	1,4	3,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	124,3	2,8	18,6
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	116,9	1,4	6,8
Material eta ekipoen fabrikazioa	111,4	3,7	3,9
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	107,7	1,6	4,1
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,0	1,5	-0,9
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioak	110,5	0,9	3,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	126,1	4,0	32,9
Ura	114,4	3,0	6,4
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	112,1	1,9	4,5
Kontsumoondasun iraunkorrak	108,0	1,3	3,2
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	112,8	2,0	4,7
Ekipo-ondasunak	112,2	2,0	3,2
Bitarteko ondasunak	118,6	3,4	14,4
Energia	133,7	6,1	40,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan, 2022ko urtarrila 2021eko urtarrilaren aldean, prezioen igoera handienak honako adarretan izan dira: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 40,0), *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 32,9) eta *Industria kimikoa* (% 20,9). Behera egin dute prezioetan, berriz, *Ehungintzak, jantzigintzak, larrugintzak eta oinetakoen industriak* (% 3,8) eta *Garraio-materialaren fabrikazioak* (% 0,9).

Halaber, helburu ekonomikoaren arabera ondasunen talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian positiboa izan da horientzat guztientzat: *Energiarenak* % 40,2 egin du gora, *Tarteko ondasunenak* % 14,4 eta *Ekipoko ondasunenak* % 3,2. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 4,5eko hazkundera izan dute prezioetan, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 4,7 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 3,2 igo direlako.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, urtarrileko indizea laginaren % 95,09ko estaldurarekin kalkulatu da –haren informazioa urtarrilean eta otsailean jaso da–.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62